

FUNTSEZKO JARDUERAK:

Gure jarduera nagusia ingurumena zaintzea da, aldi berean elikadura osasuntsuak behar duen garrantzia ematen saiatuko gara. Makinak arazo bat badu, norbait bidaliko dugu konpontzea. Gure bezeroek arazo bat edukiko balute, gure telefono zenbakira deitu beharko dute guri jakinarazteko. Arazoa janariaren kalitatearen inguruan balitz, enpresak hornitzaileekin kontaktuan jarriko zen.

Guk egingo ditugun atalak; produktua erosi, bildu, banatu eta makinetan jarri.

Jakiteko nola funtzionatzen duten merkatuan eta jendearen bizitzan eragina duen ala ez, lehenik bi makina jarriko ditugu frogatzen: EHU/UPV-n eta nerabeen ikastetxe edo eskola batean, jakiteko adin bakoitzak nolako jarrera duten makinarekiko.

Froga honekin aurre ikusiko dugu zer etekin lortuko genuke eta non da arrakasta gehien izango duen gunea. Baita ere gehien gustatzen edo saltzen diren produktuak zeintzuk diren eta ze kantitatean saltzen diren jakitea baliatuko digu. Datu hauek jakinda, gure zerbitzua egokituko genuke tokira; hau da, toki bakoitzean merkatuak eskatzen duena emango genioke.